

UDALAK 2012ko ABENDUAREN 20EAN EGINDAKO OHI KANPO ETA PRESAZKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M^a Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sánchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko abenduaren 20ean ohiz kanpo eta presazko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 18:40etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- BATZARRA PREMIAZKOTZAT JOTZEA. – Apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.2.b artikuluan eta azaroaren 28ko Errege Dekretuaren 79 artikuluan xedatutakoa betez, alkate-lehendakari jaunak bilkura premiazkotzat jotzeari bozketa egin du. Aho batez onartu da bilera presazkotzat jotzea.

2.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK MURRIZTEAREN INGURUKOA, HELBURU DUENA 20/2012 ERREGE DEKRETU-LEGEA EZARTZEAK UDAL LANGILEEKIKO SUPOSATZEN DUEN KONPARAZIOZKO BIDEGABEKERIAK SAIHESTEKO HELBURUAREKIN. – Aurrekontua gauzatzeko arauak, Udal Osoko bilkuran onartuak, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten gobernu-taldeko Udalbatzako kideek jaso beharreko urteko ordainsariak jasotzen ditu 11-1 artikuluan.

Urteko ordainsaria 14 ordain-alditan dago banatua eta halaxe jasotzen da berariaz alkateak izendapen horiek egiteko hartu dituen erabakietan.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoak, agintzen du sektore publikoko langileek 2012an izango dituzten ordainsariak abenduko aparteko pagari dagokion neurrian murriztuko direla.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- Udaleko betebeharretan erabateko dedikazioz edo dedikazio partzialez ari diren gobernu taldeko kideei ere udal langileei ordainsarrietan aplikatuko zaizkien irizpide berberak aplikatzea, aipatutako 20/2012 Errege Lege Dekretuan araututakoa bere horretan betetzeak eragingo lukeen konparaziozko bidegabekeria saihesteko.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

Lehenik eta behin esan nahi dut ez dela aparteko ordainsaria, ez da gehigarri bat, soldata da; eta Madrileko gobernuak (Alderdi Popularra) egin duena soldatak murrizteko ahalegina izan dela. Guk defendatzen duguna da nolabait ere ordaindu egin behar dela, eta behar den diru kopurua gorde behar dela ordain daitekeenean ordaintzeko. Egia da, bestalde, politikariek langileen tratamendu bera izan behar dutela. Garbi utzi nahi duguna da soldatak murrizten ari direla.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Gure ustez ordaindu egin behar zitzairen aparteko soldata bai politikariei eta bai funtzionarioei ere.

Zenbaitetan mozioak bidaltzen dira honelako edo halako erakundeetara eta, nire uste, Madrileko Gobernuari esan beharko litzaioke lotsagarria dela funtzionarioei bai, baina beraiei ez, eragiten dien dekretu bat onartu izana. Esan beharko genioke Hernaniko politikari liberatuen eredu jarrai dezatela, eta dekretuak beraiei ere -eta ezer baino lehen onartu dutenei- eragin beharko liekeela.

Alkateak (Bildu) esan du printzipioz Amonarraiz jaunaren hitzak akta jasoak daudela.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 18:45 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.